

0 SARRERA: IKERKETAREN OBJEKTUA ETA EGITURA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak haur eta nerabeen aisiaren inguruan azaldutako kezak izan ziren ikerlan honen abiapuntua. Izan ere, azkeneko urteetan haur eta nerabeen aisialdiak eraldaketa sakonak bizi izan ditu; transformazio horien adierazlea dira, besteak beste, zenbait aisialdiko elkarre desagertu izana, aisialdi hezitzailearen eskaintza murriztuz joatea eta, berriz, ekimen pribatuen eskutik antolatzen dena ugartuz joatea. Eskaintzaren aldetik dauden aldaketekin batera, gurasoen zein haur eta gazteen jokamoldeak eta pentsamoldeak ere forma berriak hartzen ari dira.

Esandakoagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak beharrezkotzat jo zuen aisialdirako eskaintzaren nahiz eskariaren inguruko azterketa bat egitea. Aldundiak alor honetan dituen eginkizun eta erantzukizunak –programa propioak garatzea zein aisialdiko taldeek proposaturikoak bultzatzea- egungo errealiterako egokitzeko asmoz; Gazteria Zerbitzuak sumatutako eraldaketaren nondik norakoa aztertzeko premiari erantzun nahi dio ikerketa-txosten honek.

Hartara, haur eta gazteen aisialdi antolatuaren mundua zein egoeratan dagoen eta zein aldaketa-joerak dituen jakitea eta, horretan oinarrituz, aurrera begirako lan-ildoak proposatzea eta taxutzea izan dugu iparra eta helburu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak ezinbestekotzat jo zuen, beraz, bidean geldiene bat egitea eta aisiaren etorkizuneko eszenatokia irudikatzea. Gogoeta, azterketa eta aurreikuspen ahalegin horri erantzun nahi dio ikerlan honek.

0.1. IKERKETAREN HELBURUAK

Ikerketa honi ezarri zaizkion xedeak ondorengoak dira:

- A.** Ikerketa hurbilpen gisara, Gipuzkoan gaur egun aisialdiaren esparruak dituen elementu definitzaile nagusiak zehaztea da lehendabiziko helburua; beti ere aurreko hamarkadetatik hona aisialdiaren esparruak izan dituen aldaketak identifikatuz.
Egon dagoenaren informazioetik abiatuz, haur-nerabeen aisialdirako ekintzak antolatzen dituzten agenteen identifikazio eta tipologizazio zehatza legokiguke egitea; hala nola, agente-mota bakoitzaren filosofia, jardunbidea eta tendentzia nagusiak argitzea.
Informazio hori guztia asmo zehatz batekin antolatuko litzateke: Gipuzkoako lurraldean aisialdiko programazio-mota ezberdinen artean arrakasta gehien eta gutxien duten eskaintzak identifikatzea eta deskribatzea eta, horrekin batera, balizko krisi egoeraren agerpena aztertzea.
- B.** Aurreko helburua osatze aldera, eta **bigarren helburu modura, haur-nerabe eta beraien gurasoen baloreak, nahiak eta aisialdiarekiko pentsamoldeak aztertzea ezarri dugu.** Horrela, egun dagoen aisialdirako eskaera zein planteamenduetatik egiten den jakiteko modua genuke.
Behin hori eginda, gizartearen eskaerari erreparatuz, eta orain arteko eredu-ahuldadeak arakatuz, gaur egun aisialdirako eskaintza batek, erakar-garri izatekotan, bete beharko litzuzkeen helburuak, ezaugarriak eta lan-ildoak identifikatzea izango da gure zeregina.
- C.** **Azkenik**, gure lanaren helburu nagusienetako bat da ere **etorkizunean aisialdiaren esparruak izan dezakeen itxura aurreratzea** (agente bakoitzaren pisua eta garrantziaren arabera, zein gizartetik etor daitezkeen eskaeraren inguruko hipotesien bidez).
Irudikatutako panoramaren aurrean, Aldundia aisialdiaren arloko agente ere baden neurrian, aukeran dituen jokamoldeak eta jardunbideak mahai-gai-neratzea legokioke ere ikerlan honi.

0.2. IKERKETAREN METODOLOGIA

Definitu ditugun helburuak betetzeko egokiena delakoan, metodologia kualitatiboa da ikerketa jorratzeko erabili dugun metodologia.

Bide horretatik, elkarriketa pertsonalak eta eztabaida taldeak erabiliz, azkeneko hamarkadetan egon diren aldaketak aztertzeko, eta etorkizunari begira dauden planteamendu ezberdinak jasotzeko asmoz, aisiaren arloan ibilbide luzea daukaten pertsonen diskurtsoak landu ditugu.

Era berean, gaztetxoak alde batetik, eta gurasoak bestetik, eztabaida-talde-

etan bilduz, beraien pentsamoldeak, baloreak eta beharren gaineko diskurtsoak arakatu ditugu.

Azkenik, auzo bateko eta bi herritako errealitate zehatzean murgilduz, behaketa zuzena deituriko teknikarekin (maila lokalean informazio bilketa zehatza eta tokian tokiko protagonistekin hartu-eman zuzena), bertako aisialdiko dinamikaren berri jaso dugu, eta aisialdiko agente ezberdinak identifikatu eta beraien arteko harremani arreta berezia eskaini diegu.

0.3. IKERKETAREN IBILBIDEA

Behin ikerketaren helburuak, planteamendu metodologikoa zehazturik, goazen segidan ikerketa-taldeak, ikerketaren jardunean behin sartuta, egin duen bidearen berri ematera.

Azterlan honen **lehenengo urratsa bibliografian aurkitu daitekeen dokumentazioaren azterketa izan zen**, lantaldeko kideen artean beraien edukia eztabaidatu ondoren, erreferentzia kontzeptualen markoa zehaztu arte.

Dokumentatze lanean oinarriturik, elkarrizketa eta eztabaida-taldeen gidoiak prestatu eta elkarrizketak egiteari ekin genion. Guztira **11 elkarrizketa egin ditugu**, horietatik 7 Gipuzkoako aisiaren arloan jarduten duten talde, erakunde eta enpresa ezberdinetako ordezkariekin; 2 elkarrizketa Bizkaian aisialdiaren arloan ibilbide luzea daukaten bi pertsoekin; eta, azkeneko biak, Katalunian egin genituen, hango egoeraren berri izateko asmoz.

Bitartean, **bestelako informatzaile estrategikoen bidez, Gipuzkoan dauden aisialdiko agente ezberdinetara** (aisialdiko talde, ikastetxe, udal, zerbitzu-enpresa eta kirol zein kultur talde) **hurbildu ginen** euren egoera eta itzaropenen berri edukitzeko.

Oinarritzko informazio orokor hori bildu ostean, arestian aipaturiko **behaketan zehatza abiatu genuen Gipuzkoako hiru tokitan**: Eibarren, Donostiako Egia auzoan eta Ordizian. Izan ere, toki horietan dauden aisialdiko dinamika eta protagonistak bereziki interesgarriak iruditu zitzaizkigun geure helburuetarako.

Azkenik, informazioaren bilketari zegokion azkeneko urratsa eman genuen: **gurasoekin eta nerabeekin egindako eztabaida taldeak**. Guztira, 4 eztabaida talde burutu ditugu; 3 gurasoekin (Zarautzen, Lasarte-Orian eta Ordizian) eta 1 gaztetxoekin (Ordizian).

Informazio enpiriko guzti horren analisia izan zen hurrengo zeregina. Analisia egin eta gero, definitutako helburuak eta argitu beharreko galderak erantzuteari ekin genion. Ondoren aurkezten dizuegun txostena bizkar-hezur eta ardatza horixe du.

0.4. TXOSTENAREN ANTOLAKETA

Txostenaren **lehenengo atalean**, edozein ikerketan egin beharreko definizio eta zehaztapen kontzeptualak egin eta gero, bildutako informazioaren arabera aisialdiaren arloan azkeneko hamarkadetan egondako bilakaera orokorraren deskribapena egiten dugu.

Bigarren atalean, Gipuzkoan dauden aisialdiko agente ezberdinen eskaintzak aztertzen ditugu; panorama estatiko bat erakustez gain, erradiografia dinamikoa atera diogu aisiaren arloari, agente ezberdinen arteko har tu-emanak eta kokapen erlatiboak aztertuz. Horrela, gaur egun aisialdirako eskaintza arrakastatsu batek di-tuen funtsezko ezaugarriak identifikatzen ahalegindu gara.

Hirugarren atalean, aisiaren eskaeraren aldetik, gaztetxoek zein gurasoek azaltzen dituzten aisiarekiko pentsamoldeak, baloreak eta beharrak agertzen ditugu. Hurbilpen orokor horrekin batera, guraso eta haurren lehentasun eta eskakizun zehatzak biltzen ahalegindu gara .

Laugarren atalean, aurreko ataletatik atera ditugun ondoriorik esanguratsue-nak laburbildu ditugu. Horrekin batera, etorkizunari begira baliagarriak izan daitez-keen ondorioak landuz, datozen urteetan aisiaren eszenatokiak izan dezakeen itxu-ra irudikatze ariketa egin dugu.

Azkenik, **bosgarren atalean**, etorkizuneko eszenatoki horretan kokatzeko eta jarduteko Gipuzkoako Foru Aldundiari egiten dizkiogun proposamenak zehazten di-tugu.